

ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

Kasu guztietan
<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitzaren titulartasunaren ohar soila, Jabetza Erregistroak emana.
<ul style="list-style-type: none">• Konpentsazioaren bidezko tasunaren azalpen arrazoitua, ekainaren 8ko 401/2021 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan aurreikusitako moduan. <u>Ez da beharrezkoa higiezin dagoen ingurunean etxebizitza alokatzeari legokiokkeen batez besteko balioa barne hartzea.</u>
<ul style="list-style-type: none">• Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzearen erantzukizunpeko adierazpena. Eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko da konpentsazioa onartu eta ordainketa egin aurretik, eta horretarako ez da eskatzaileen baimenik behar, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hala ere, eskatzaileak modu arrazoituan aurka egin ahal izango du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, aipatutako dokumentuak aurkeztu behar dituzte.
<ul style="list-style-type: none">• Hala badagokio: Etxebizitzaren titularkideen eranskina
<ul style="list-style-type: none">• Hirugarrenaren altaren dokumentu betea, honako helbide honetan eskuragarri dagoena: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datuak-aldaketa/
Alokatutako etxebizitzaren kasuan
<ul style="list-style-type: none">• Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan aipatzen den utzarazpena edo kaleratzea ohiz kanpo eteteko intzidentean epaileak emandako autoaren kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Gizarte-zerbitzuen txostenaren kopia, errentariaren edo errentarien kalteberatasun-egoera baloratzen duena eta administrazio eskudunak aplikatu beharreko neurriak identifikatzen dituena, neurriak izanez gero. Hala ez bada, edozein dokumentu judizialen kopia, txosten hori noiz eman den adierazten duena.
<ul style="list-style-type: none">• Prozeduraren etetea bertan behera uzteko dekretuaren kopia, halakorik izanez gero.
<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren kopia
<ul style="list-style-type: none">• Hala badagokio, errentatzaileak etxebizitzaren gastu arruntak ordaindu dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, utzarazpena edo kaleratzea eteteko autoa eman ondorengoa.
Alokatu gabeko etxebizitzaren kasuan, hau da, horretarako gaikuntza-titulurik ez duten pertsonak bizi diren etxebizitzaren kasuan (adibidez, prekarioan lagatakoak edo "okupatuak")
<ul style="list-style-type: none">• Kaleratzea eteteko autoaren kopia, bide zibilean edo bide penalean emana, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
<ul style="list-style-type: none">• Gizarte-zerbitzuek egindako txostenaren kopia. Txosten horretan, beren etxebizitza higiezin finkatu duten pertsonen kalteberatasun-egoera baloratuko da, eta administrazio eskudunak aplikatu beharreko neurriak identifikatuko dira, halakorik izanez gero. Hala ez bada, edozein dokumentu judizialen kopia, txosten hori noiz eman den adierazten duena.
<ul style="list-style-type: none">• Kaleratzearen etetea kentzeko autoaren kopia, halakorik izanez gero.
<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza horretan gaikuntza-titulurik gabe bizi ziren pertsonak sartu baino lehen, etxebizitza saltzeko edo alokatzeko eskainita zegoela egiaztatzen duen dokumentazioa.
<ul style="list-style-type: none">• Hala badagokio, kaleratzea eteteko autoa eman ondoren jabeak etxebizitzaren gastu arruntak ordaindu dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.